# ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAREN FINANTZAKETA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

**INDARREAN 2008KO URTARRILAREN 1ETIK**

**(2007KO ABENDUAREN 31EAN BEHIN BETIKOZ ONARTUA)**

**(G.A.O. 253 ZKIA-2007.12.31)**

## ZIOEN AZALPENA

Bizi itxaropena handitzeak nahiz gure gizartearen adin piramidea aldatzeak berekin ekarri duten adineko pertsonen hazkunde demografikoa –hazkunde erlatiboa eta garbia–, familia harremanak babes agente gisa izan duten aldaketa edota gizarte zerbitzuen garapena, besteak beste, eragin handia duten faktoreak ditugu bizitza bete bat bermatzeko –baita besteren behar maila handia denean edo gizarte babesa falta denean ere– behar diren zerbitzuak zehazteko orduan.

Adineko pertsonek behin eta berriro adierazi dute ahalik eta denbora gehien egon nahi dutela beren etxean, beren bizialdi guztian izan duten gizarte sare erreferentziazko hori galdu gabe, eta, horrek, jakina, lehentasuna du pertsona horiei beren mendekotasunak aurrera egin ahala eman behar zaizkien zerbitzuak aintzakotzat hartu eta zehazteko garaian. Horrezaz gainera, ordea, badira beste alderdi asko ere (etxe ingurua, jobideak, komunitatean diren laguntza zerbitzuak eta abar) nahitaez kontuan izan behar direnak, besteen beharra duen edo ezintasunen bat duen pertsonak bere bizimodua egiteko dituen aukerak mugatu edo baldintzatzen dituztenak.

Horrela, eguneroko bizimodua samurrago egiteko babes eta laguntza zerbitzu edo elementuak jartzea goiti-beheiti, nahitaezkoa da zerbitzu oso bat izatea, besteen beharra duenari edo ezintasunen bat duenari bere etxean eta komunitatean kasu egiteko zerbitzu nagusi bat, behar mota askotara egokitzeko eta zerbitzua ordu edo zatika ere emateko modukoa eta, era berean, larrialdiei erantzutea bere gain hartzeko eta zerbitzu beharren aldaketei arin erantzuteko gauza izango dena. Alde horretatik, bada, etxeko laguntza oinarrizko zerbitzua da sistema horretan.

Hala, zerbitzua jaso behar dutenek dituzten beharren arabera guztiek aukera berberak izatea bermatu behar du administrazio publikoak, eta baita zerbitzua jasotzen dutenek zer ekarpen egin behar duten zehaztu ere, zerbitzua jaso behar dutenek dituzten diru-sarreren arabera. Era berean, zerbitzuaren eta zerbitzua izateko eskubideen esparru argi bat eskaini behar die herritarrei ere. Araudi hauxe da hori guztia jaso nahi duen dokumentua, zerbitzua zehazten duten puntu argi eta baliagarri batzuk eskaintzen dituena eta zerbitzua jaso behar duenari dituen eskubideak eta betebeharrak ulertzen laguntzen diona.

Nolanahi ere, etxeko laguntza zerbitzuaren araudi honekin ez da agortuko Udalak pertsonei kasu egiteko beste zerbitzu batzuk jartzeko biderik, baldin eta beste zerbitzu horiek pertsonak eta haien beharrak doitzeko bide berritzaileak badira, –nahiz metodologiaren alderditik, nahiz finantzabidearen alderditik eta nahiz zerbitzua jasotzen duen pertsonak hornidura modulatzeko orduan parte aktiboa hartzearen alderditik–, eta beti ere dagokion organo aginpidedunaren oniritzia badute.

## LEHEN TITULUA

**1. artikulua**.- Xedea

Araudi honen helburua da Anoetako udalean etxez etxeko laguntza zerbitzua arautzea.

**2. artikulua**. Aplikazio eremua

Arautzen den zerbitzua Anoetan emango da, udalak gizarte zerbitzuetan dituen eskumenen eta adineko ezinduei zerbitzua emateko Gipuzkoako Foru Aldundiarekin izenpetutako akordioen baitan.

**3. artikulua.-** Etxeko laguntza zerbitzuaren definizioa.

Etxeko laguntza zerbitzua zerbitzu publiko soziala da, beren kasa baliatzeko edo familiaren nukleoari osorik eusteko arazoak dituztenentzako dena eta ongizate fisiko, psikiko eta/edo soziala bere onera ekartzeko helburua duena, bakoitzari bere prebentzio, asistentzia eta/edo birgaitze programa aplikatuta, ahal den bitartean norberaren etxean bizitzen laguntzeko.

**4. artikulua**. Etxeko zerbitzuen helburuak.

Hona hemen zerbitzuen helburuak:

- Autonomia galtzeari aurrea hartzea eta/edo autonomia galtzea konpentsatzea. Horretarako, eguneroko jarduerak eta/edo etxeko ingurunea bizitzeko baldintza egokietan mantentzeko jarduerak egingo dira.

- Arretarako sare naturala osatzen duten zaintzaileei laguntza ematea.

- Erabiltzaileak beren komunitatean integra daitezen bultzatzea eta bakartze egoerak saihestea.

- Bizikidetza giroa hobetzea. Horretarako, arriskuren bat sor dezaketen egoerak saihesteko esku hartuko da.

- Beste zerbitzu batzuen esku-hartzea eska dezakeen beharren bat sortzen denean, behar horiek antzemateko elementutzat jardutea.

- Pertsonak bere etxean bizitzen jarrai dezan erraztea.

**5. artikulua.-** Printzipio orokorrak

Zerbitzu hauek honako printzipio orokor hauen arabera emango dira:

- ♣ Normalizazio eta integrazio printzipioa: zerbitzua erabiltzaileen etxearen, familiaren, gizartearen eta kulturaren ingurunean emango da, ahal den neurrian lehendik dauden baliabide normalizatuak erabiliz.
- ♣ Autonomia printzipioa: ahal den gehien bultzatu behar da erabiltzailearen autonomia.
- ♣ Parte hartze printzipioa: arretarako plana egitean, pertsonak parte har dezan bultzatu behar da.
- ♣ Orokortasun printzipioa: ematen den arretak integrala izan behar du. Era askotako laguntzak eman behar dira, erabiltzaileek duten era askotako beharrak betetzeko.
- ♣ Profesionalizatze printzipioa: zerbitzuko arduradunek nahiz arreta zuzeneko langileek dagokien prestakuntza teknikoa izan behar dute.
- ♣ Banakakotze printzipioa: zerbitzuaren erabiltzaileei aldez aurreko balorazioa egingo zaie. Balorazio hori banakako arretarako plan batekin amaituko da, eta plana haien beharrei egokituko zaie.
- ♣ Osagarritasun printzipioa: laguntza hau beste gizarte laguntza batzuekin batera eman ahal izango da.
- ♣ Prebentzio printzipioa: Prebentzioa kontuan izan behar du zerbitzuak. Izan ere, erabiltzaileak

okerrera egitea eta horren ondorioz datorren instituzionalizazioa saihestuko dira.

# BIGARREN TITULUA. ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA

## I. KAPITULUA.- ZERBITZUKO ETA ZERBITZUZ KANPOKO JARDUERAK ETA HAIEN EZAUGARRIAK

**6. artikulua**.- Zerbitzuko eta zerbitzuz kanpoko jarduerak

Etxeko laguntzatzat ulertuko da erabiltzailearen etxean etxeko lanak egitea, erabiltzailea zaintzea, eta laguntza ematea gizartearen eta komunitatearen aldetik, etxeko bizi kalitatea hobetzeko.

6.1.- Zehazki, zerbitzuko jardueratzat joko dira honako hauek:

1) Etxeko laguntzako jarduerak:

a) Elikadurarekin lotura dutenak:
- Janaria prestatzen laguntzea
- Janaria erostea

b) Jantziekin lotura dutenak:
- Etxean arropa garbitzen laguntzea
- Arropa pasaratzea
- Arropa ordenatzea
- Etxean arropa lisatzea

- Arropa erosten laguntzea

c) Etxebizitza mantentzearekin lotura dutenak:
- Garbiketa orokor handiak izan ezik, etxebizitza garbitzea eta mantentzea
- Ohea egitea
- Etxean egin behar diren ohiz kanpoko garbiketak egitea
- Jabekideen komunitatearenak diren tokiak garbitzea.

2) Laguntza pertsonaleko jarduerak

Honako hauek hartuko dira eguneroko bizitzako laguntza pertsonaleko jardueratzat:

- Garbiketa eta higiene pertsonalak (barruan sartzen da pertsonaren jantziak eta oheko arropa aldatzea)
- Ohetik jaikitzeko, oheratzeko eta eserlekutik altxatzeko laguntza ematea
- Janzten eta jaten laguntzea
- Medikuak adierazitako ahoz hartzeko botikak kontrolatzea eta botiken

segimendua egitea

- Etxean mugitzeko laguntza ematea
- Etxetik kanpo lagun egitea izapide pertsonaletan: bankuan, osasun arloan, errekurtsoak izapidetzen, dokumentazioa eskatzen eta ematen.
- Etxe ingurunean egin beharreko joan-etorrietan laguntzea: haurtzaindegietara, ikastetxeetara egin beharreko joan-etorrietan laguntzea, gizarte zerbitzu espezializatuen garraioak hartzen laguntzea.

3) <u>Beste jarduera osagarri edo berezi batzuk</u>

Egoera berezietan, zerbitzuaren helburuak lortzeko nahitaezkotzat jotzen diren beste ekintza batzuk egin daitezke:

- Zerbitzu normalizatua ezarri baino lehen, higiene arazo larriak dituzten etxeetan garbiketa orokorrak egitea.
- Higiene eta osasungarritasun arazo larriak dituzten etxeak hustea eta garbitzea, betiere osasun agintaritzarekin lankidetzan arituta.
- Beste zerbitzu batzuk, baldin eta Gizarte Ongizateko Udal Zuzendaritzak/Agintaritzak edota udaleko gizarte zerbitzuek berariaz baimendutakoak badira.

6.2.- Zerbitzutik kanpo honako jarduera hauek geratzen dira:

- Lagun egiteko eta paseatzera joateko zerbitzua

- Etxe berean bizi diren familiako kideei edo adiskideei arreta zuzena ematea, baldin udal zerbitzu teknikoen aburuz zerbitzuaren erabiltzaile ez badira.
- Etxean bizi diren gainerako pertsonei zuzenean mesede egiten dieten etxeko lanetan laguntzea.
- Osasun arloko jarduerak, jarduera horiek egiteko berariazko prestakuntza behar bada (injekzioak ipintzea, tentsioa hartzea, zundak erabiltzea, ultzerak eta eskarak tratatzea, eta ezagutza espezializatuak eskatzen dituzten zenbait botika ematea).
- Etxean konponketa garrantzitsuak egitea (pintatzea, papera ipintzea).
- Lehen atalean zehaztu ez diren garbiketa lanak egitea.
- Udaleko zerbitzu teknikoek prestatutako txostenean aurreikusten ez diren zeregin guztiak.

**7. artikulua.-** <u>Etxeko laguntza zerbitzuaren ezaugarriak</u>.

Etxeko laguntza zerbitzua onuradunen etxe partikularretan, propioetan edo onuradunen familiakoenetan, emango da, Anoetako udalerriaren barruan.

Onuraduna familiako kideen etxeetan txandakatuta bizi bada, zerbitzua etxe batean baino gehiagotan eman ahal izango da, baldin etxea Anoetako udalerrian badago, araudi honetako 8. artikuluan aurreikusitako baldintzen arabera.

<u>1) Arretarako egunak</u>

- ♣ Oro har, zerbitzua urte osoan emango da astelehenetik ostiralera bitartean.
- ♣ Izaera mugatuarekin, zerbitzua asteburuetan eta jaiegunetan eskaini ahal izango zaie, balorazio teknikoaren arabera familiako laguntzarik edo gizarte laguntzarik ez duten pertsonei, bai eta beren egoeragatik arriskuan egon daitezkeenei nahiz hirugarren batzuk arriskuan jar ditzaketenei ere.
  Eusko Jaurlaritzak ofizialki jaieguntzat onartutakoak joko dira jaiegun.

2) Zerbitzuaren iraupena

Pertsona bakoitzaren beharren azterketa eginda jarriko da zerbitzuaren iraupena. Zerbitzuaren gehieneko iraupena egunean hiru ordukoa izango da, hau da 15 ordu astean. Dena dela, artikulu honetako lehenbiziko puntuko bigarren paragrafoan adierazitako kasu berezietan, zerbitzuaren asteko gehieneko iraupena 18 edo 21 ordukoa izan daiteke.

15 minutukoak baino motzagoak ez diren zatitan zatituko da ordutegia.

Erabiltzaile bakoitzak izango duen zerbitzuaren iraupena lehen xedapen gehigarrian adierazitakoaren arabera erabakiko da.

3) Arreta orduak

Zerbitzuaren ordutegia malgua eta egunekoa da, 7:00etatik 22:00etara bitartekoa, hain zuzen.

- ♣ Laguntza pertsonaleko zerbitzuetan, udal teknikariak ezarriko du ordutegia, eskatzailearen ordutegietako ohiturak eta beharrak kontuan hartuta.
- ♣ Gainerako laguntza zerbitzuetan, udal teknikariak ezarriko du ordutegia, zerbitzua eskaintzen duen erakundearekin batera. Zerbitzua ematen duen langileak duen ordutegiaren arabera antolatuko da arreta emateko ordutegia.

## II. KAPITULUA.- ERABILTZAILEAK

**8. artikulua**. Erabiltzaileak zehaztea: sartzeko baldintza orokorrak

A) Erabiltzaileak zehaztea.

1.- Etxeko laguntza zerbitzua pertsona autonomoei zuzenduta dago udal eskumenen indarrez, eta pertsona ezinduei Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hartutako akordioen indarrez.

2. Oro har, hona hemen zerbitzuaren erabiltzaileen profila: autonomia galtzearen ondorioz, beren etxean bizitzen jarraitu ahal izateko, oinarrizko etxeko lanak egiten laguntza behar dutenak, bai aldi baterako laguntza bai laguntza iraunkorra.

3. - Zehazki, etxeko laguntza zerbitzuaren erabiltzaileak honako hauek dira:

- ♣ Autonomia pertsonalerako zailtasunak dituzten 60 urtetik gorako pertsonak.
- ♣ Autonomia pertsonalerako zailtasunak dituzten ezgaitasunak nahiz elbarritasunak dituzten pertsonak.
- ♣ Beren familiek zaindu ezin dituzten eta behar duten arreta eman ezin dieten adingabeak.

- ♣ Honako familia talde edo pertsona hauek: zama gehiegi dutenak; harreman gatazkatsuak dituztenak; gizarte egoera ezegonkorrak dituztenak; eta/edo gaixotasun fisikoen eta/edo psikikoen ondorioz arazoak dituztenak.

Eskaera pertsona multzo batentzat egiten denean, multzo horretako kide guztiek bete beharko dituzte eskatutako baldintzak. Nolanahi ere, onuradun guztiak ordezten dituen zerbitzuaren titularra izendatu behar da. Titular hori hiltzen bada, egoitzara bizitzera joaten bada edota beste etxe batera joaten bada, etxekoen unitateko beste pertsona batek ordeztu ahal izango du.

Titulartasuna aldatzen denean, berriz ere balioztatuko dira beharrak, familiaren eta gizartearen aldetiko egoera nahiz egoera ekonomikoa.

B) Sartzeko baldintza orokorrak.

Lehen esandako talde horietako batekoa izateaz gainera, Anoetan erroldatuta ere egon behar du eskatzaileak, eskaera egin baino urtebete lehenagotik.

Baldintza hori bete ez arren, norbaitek honako hiru baldintzetako bat betetzen badu, aukera izango du zerbitzua eskuratzeko:

1. Familia biltzeko bizitokiz aldatu, eta Anoetara etorritako pertsona izatea, eta pertsona horrek jatorriko udalerrian etxeko laguntza jaso izana ordura arte. Eskaera egitean Anoetan erroldatu beharko du. Era berean, jatorriko udalerriko gizarte zerbitzuen ziurtagiria aurkeztu beharko du, etxeko laguntza jaso duela egiaztatuz.
2. Familiako laguntza jasotzearren, hainbat udalerritako etxeetan txandaka bizi den pertsona izatea. Horrez gain, erroldatuta dagoen udalerrian etxeko laguntza zerbitzuaren onuradun izatea. Jatorriko udalerriko gizarte zerbitzuen ziurtagiria aurkeztu beharko du, etxeko laguntza jasotzen duela egiaztatzeko.
3. Familia biltzeko, udalerri honetara etorrita, zerbitzua justifikatzen duen menpeko egoera duen pertsona izatea. Eskaera egitean Anoetan erroldatu beharko du.

**9. artikulua**. Erabiltzaileen eskubideak.

Batetik, 2004ko apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuko (Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna, eta iradokizunen eta kexen araubidea onartzen du) II. kapituluko lehenengo atalean onartutako eskubideak dituzte etxeko zerbitzuaren erabiltzaileek. Bestetik, honako eskubide hauek dituzte:

- ♣ Zerbitzua EAEko hizkuntza ofizialetako edozeinetan jasotzeko eskubidea
- ♣ Zerbitzua ematen duen langilea nahiz zerbitzuaren intentsitatea alda dezaten eskatzeko eskubidea
- ♣ Zerbitzuaren baldintzak aldatu baino lehen jakiteko eskubidea.

**10. artikulua**. Erabiltzaileen betebeharrak.

Batetik, 2004ko apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuko (Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna, eta iradokizunen eta kexen araubidea onartzen du) II. kapituluko bigarren atalean onartutako betebeharrak dituzte etxeko zerbitzuaren

erabiltzaileek. Bestetik, honako betebehar hauek dituzte:

- ♣ Zerbitzua ematen duten langileei lana erraztea, haiekin lankidetzan aritzea eta langileok ongi tratatzea.
- ♣ Norberaren egoera sozio-ekonomikoa baliozta dezan, gizarte langileari beharrezko dokumentuak ematea eta etxean sartzen uztea, nola balioespen hori egiteko orduan hala jarraipena egiteko bisitetan.
- ♣ Etxean bizitzea.
- ♣ Aldez aurretik hitzartuta ez dagoen laguntza emateko eta udalaren ebazpenean sartuta ez dauden pertsonak zaintzeko ez eskatzea.
- ♣ Etxeko laguntza zerbitzua ematen duen langilea lanak egiten ari den bitartean erabiltzailea etxean egotea.
- ♣ Zerbitzua eten dezaketen joan-etorrien berri aldez aurretik ematea.
- ♣ Etxeko langileei etxeko lanak nahiz esleitutako lanak egiteko beharrezkoak diren tresnak eta materialak ematea.
- ♣ Ematen den zerbitzua aldatzeko modukoak diren bat-bateko gertaeren berri ematea udal langile teknikariei.
- ♣ Etxeko laguntza zerbitzuko langileak lan egiten izan duen edozein irregulartasunen berri ematea gizarte langileari.
- ♣ Orduko ezarritako prezioa adierazitako epean ordaintzea emandako zerbitzu bakoitzarengatik, (ordu horietan sartzen dira, halaber, eskatzaileari egotz dakiokeen arrazoiren bategatik bete gabeko orduak).
- ♣ Gizarte langileari norberaren egoera sozio-ekonomikoan izandako edozein aldaketaren berri ematea.
- ♣ Zerbitzua jasotzen ari den bitartean hartutako gaixotasun infekzioso-kutsakorren berri ematea udaleko pertsonal teknikoari, etxeko laguntzaileek hartu beharreko babes neurriak har ditzaten.
- ♣ Udal teknikariari zerbitzua zein bankuren eta zein kontu korronteren bidez ordainduko den esatea.
- ♣ Gipuzkoako Foru Aldundiari menpekotasunaren balorazioa eta/edo minusbaliotasunaren kalifikazioa egin dezan eskatzea.

Betebehar horietakoren bat betetzen ez bada, zerbitzua eten edo iraungi egingo da, araudi honetan onartutako prozeduraren bidez.

## III. KAPITULUA SARTZEKO PROZEDURA

## 1. SEKZIOA. ESKATZAILEEN ZERRENDAN SARTZEA

**11. artikulua**.- Eskatzaileen zerrenda

Zerbitzua eskatzen dutenen zerrendaren bidez ezartzen dira zerbitzua emateko lehentasunak. I. eranskineko baremoa oinarri hartuz lortutako puntuazioaren arabera lortzen da lehentasuna.

Eskaera guztiak betetzeko aurrekonturik ez dagoenean, itxaron zerrenda egongo da etxeko laguntza zerbitzuan.

Zerbitzua eskatzen duten pertsona beregainen nahiz besteen beharra dutenen zerrendak batera gestionatuko dira, baldin eta administrazio eskudunek erabiltzaileen arabera zerbitzua eskaintzeko adina diru-hornidurarik bada behintzat. Administrazio eskudun batek edo biek ez badute diru-hornidura hori izatea bermatzen, itxaron zerrendak aparte gestionatuko dira.

Zerbitzua onartu ez zaien interesdunek beren espedientea berrikusteko eska dezakete, behar bezala egiaztatuta, haien egoera aldatzeagatik lortutako balorazioa alda daitekeenean.

Zerbitzua eskatzen dutenen zerrenda publikoa da. Hala ere, arlo honetan aplikagarriak diren araudien ondoriozko mugak ezar daitezke, pertsonen intimitate eskubidearekin lotura dutenak, batik bat. Eskatu ondoren, interes legitimoa dutela egiaztatzen dutenei zerrenden edukiari buruzko ziurtagiriak emango zaizkie.

**12. artikulua**.- Zerbitzu eskatzaileen zerrendan sartzeko eskabidea

Araudi honetan araututako etxeko laguntzari dagokion zerbitzu eskatzaileen zerrendan sartzeko, interesdunak inprimaki normalizatua bete beharko du. Inprimakia dagokion organoari zuzendu beharko dio, eta eskatzaileak sinatu beharko du. Inprimakia udalak bereziki gaitu dituen sarrera erregistroetan aurkeztu beharko du. Bestela, Estatuaren Administrazio Orokorrekoa edo Autonomia Erkidegoen Administraziokoa den edozein administrazio organoren erregistroan aurkeztu beharko du. Halaber, eta horretarako hitzarmenik egonez gero, toki administraziokoa den erakunderen batean, postetxean edo Espainiak atzerrian dituen ordezkaritza diplomatikoetan edo kontsul bulegoetan aurkeztu ahal izango da.

Aldi berean, interesatuak ez badu oraindik menpekotasun balorazioa izapidetu, menpekotasuna balioztatzeko eskaera egingo dio Gipuzkoako Foru Aldundiari.

Interesdunak uko egin diezaioke eskabideari, prozesuko edozein unetan. Hori idatziz egin beharko du. Hala gertatzen bada, espedientea amaitutzat joko da.

**13. artikulua**. Eskaerarekin batera aurkeztu behar den dokumentazioa.

Eskatutako zerbitzua etxeko laguntza zerbitzua bada, edo adingabeak beren kargura dituzten familiak zaintzea bada, eskatzailearen ezkontidearen edo izatezko bikotearen nahiz etxean bizi diren gainerakoen dokumentazioa ere aurkeztu beharko da:

Ondoko agiriak erantsi behar zaizkio eskaerari:

- NAren edo baliokidea den edozein identifikazio agiriren fotokopia.

- Etxekoen unitatean 18 urtetik beherakoren bat badago, familia liburua.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko balorazio unitateak emandako balorazioa.
- Hala badagokio, elbarriak direnen eta/edo eskatzailearekin bizi direnen elbarritasun ziurtagiria, bai Gipuzkoako Foru Aldundiak emandakoa, bai eskumena duen erakunde ofizialarena.
- Osasun txartelaren fotokopia.
- Egoera ekonomikoaren datuak

    - Eskaera egin aurreko lau urteetako ondasun higigarrien eta higiezinen zinpeko aitorpena.
    - Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren azken aitorpena, eta, halakorik ezean, eskatzailea deklarazioa egitera behartuta ez dagoela egiaztatzen duen Ogasunaren ziurtagiria.
    - Ondasun higiezinen gaineko zergaren eta jarduera ekonomikoen gaineko zergaren aitorpena
    - Pentsioak ematen dituen erakundearen eguneratutako pentsioen ziurtagiria.
    - Eskatzailearen eguneratutako posizio guztien ziurtagiriak, banku erakundeek emanak, eskatzaileak haietan honako hauek dituenean: aurrezki libretak, kontu korronteak, bonuak, akzioak, epe finkorako aurrezki orriak.
    - Azken nominaren edo nominen (aldaketak baldin badaude) fotokopia.
    - Ezarritako prezioa erakunde eta kontu korronte jakin baten bidez ordainduko da hilero. Beraz, erakundea nahiz kontu korrontearen zenbakia jakinaraziko dira.

- Gizarte zerbitzuek interesgarritzat jotzen duten beste edozein dokumentazio.

- Eskatzaileak bere egoera baloratzerik nahi ez badu, edo ez badu era frogagarrian egiaztatzen, ulertuko da uko egiten diela bere egoera ekonomikoa itxaron zerrenda eratzen duen baremoan kontuan hartzeari (halako zerrendarik balego) nahiz ezarritako laguntzei. Beraz, zerbitzuaren kostu osoa ordaintzera behartuta egongo da eta hori nahitaez jaso beharko du dokumentu batean.

- 8.B) artikuluan jasotako egoeretan, etxeko laguntza jasotzen duela egiaztatzen duen jatorriko udalerriko gizarte zerbitzuen ziurtagiria aurkeztu beharko du.

Dokumentu horietakoren bat lehendik ere Udalaren esku baldin badago, ez dago berriz aurkeztu beharrik, hala jartzen baitu 30/1992 Legeak ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 35. artikuluko f) atalean. Horretarako, ordea, interesatuak berak adierazi behar du noiz eta zer organori aurkeztu zion dena delako dokumentua, eta, betiere, duela bost urte baino gutxiago aurkeztutako dokumentuek balioko dute.

Eskaerarekin batera aurkezten den dokumentazioa osatugabea bada edo gaizki badago, eskatzaileak 20 eguneko epea izango du, atzemandako okerrak zuzentzeko edo osatzeko beharrezko dokumentazioa aurkez dezan. Hala egiten ez badu, eskaerari uko egin diola ulertuko da.

Eskatzaileak baimena ematen dio Udalari datuak egiaztatzeko nahiz biltzeko beharrezko kudeaketak egin ditzan. Datu horiek eskatzaileak araudi honetako baldintzak betetzen dituen ala ez, eta, hala badagokio, baldintzak egiaztatzeko eta zerbitzua finantzatzeko baliabide ekonomikoak ikusteko baino ezingo dira erabili.

Datu faltsuak emateak eta datuak ezkutatzeak eskatzaileak kanpo geratzea ekarriko du. Horrez gain, beste ardura batzuen erantzule egitea ere ekar dezake.

**14. artikulua**.- <u>Tramitazioa</u>

Erabiltzaileen beharren ebaluazioa eta gizarte txostena nahiz proposamena 2004ko apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuan (9. eta 10. artikuluak) ezarritako baldintzen eta epeen arabera egingo dira.

A) BEHARREN EBALUAZIOA

- ♣ Eskatzailearen etxebizitzari (hala badagokio, etxebizitza ibiltaria) dagozkion udaleko gizarte zerbitzuetako gizarte laneko teknikariek egingo dituzte eskaeraren izapidetzea, balorazioa eta ebazpen proposamena.
- ♣ Langile teknikoek aztertuko dute aurkeztutako dokumentazioa. Era berean, elkarrizketak, etxeetarako bisitak eta jarraian aipatuko ditugun gaiak balioztatzeko beharrezkoak diren kudeaketak egingo ditu. Hona hemen gai horiek:

- Eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko laguntza behar izatea. Jarduera horiek lotura dute nork bere burua zaintzearekin, jaiki eta oheratzearekin, janztearekin, ibiltzearekin, elikatzearekin, garbitzearekin eta esfinterrak kontrolatzearekin.
- Eguneroko bizitzan tresnak erabiliz egiten diren jarduerak egiteko laguntza behar izatea. Esate baterako, elikagaiak eskuratzea eta prestatzea, etxebizitza eta sukaldeko tresnak garbitzea, arropa garbitzea, erosketak egitea, dirua erabiltzea, botikak kontrolatzea eta etxeko nahiz etxetik kanpoko joan-etorriak egitea.
- Familiako eta gizarteko egoera. Eskatzaileak, bizi den pertsonekin nahiz gizarteko ingurunearekin duen harremana baloratzea, bai eta familiako nahiz gizarteko sareak eskatzailearen beharrei erantzuteko duen gaitasuna baloratzea ere.

- Etxebizitzak zer higiene, ekipamendu, bizigarritasun eta irisgarritasun baldintza dituen, eta ingurunean non kokatuta dagoen. Hori guztia kontuan izanda, laguntza teknikoen beharrik dagoen.

- Egoera ekonomikoa.

B) GIZARTE TXOSTENA - PROPOSAMENA

Gizarte laneko zerbitzu teknikoek honako gai hauek zehaztuko dituen nahitaezko gizarte txostena egingo dute:

- Eskatzaileak zerbitzuan sartzeko baldintzak eta eskaera aurkezteko baldintzak betetzen dituen.
- Hala badagokio, baldintzetan salbuespen egoera onar dezaten arrazoitutako proposamena.
- Eskatzailearen egoera pertsonala eta familiako nahiz gizarteko egoera. Hala badagokio, etxekoen unitatearen egoera.
- Esku-hartzearen onuradunak zein diren, zer zerbitzu mota jasoko duten, zerbitzua astean zenbat orduz eta egunez jasoko duten, eta proposatutako lanen eta zerbitzuaren iraupena zein izango den.
- Hala badagokio, baldintzetan salbuespenezko zerbitzuak egotea onar dezaten arrazoitutako proposamena.
- Eskatzaileak zerbitzuagatik ordaindu beharreko orduko prezioa.
- Hala badagokio, zerbitzua zergatik ezeztatu den arrazoitzen duen proposamena.

**15. artikulua**. Ebazpena

Eskaera aztertu eta baloratu ondoren, arrazoitutako ebazpena emango duen organo eskumendunari igorriko zaio. Hark onartuko edo ezeztatuko du eskatutako zerbitzuan sartzeko eskaera.

Eskaera udal erregistroan sartzen denetik hasita, gehienez ere bi hilabeteko epean eman beharko da ebazpena. Epe hori eten egingo da jakinarazpenaren eta jakinarazpena betetzearen artean dagoen denboran eskaerak zuzentzea eskatzen denean, eta, hala badagokio, emandako epea igarotzen denean, edo Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzailearen autonomia baloratzeko beharrezko txostena eskatu behar zaionean.

Aurreko zatian jasotako epea igaro eta gero ebazpenik eman ez bada –betiere ebazpena emateko betebeharrarekin–, eskaera atzera bota dela jo daiteke, interesatuak aukerako berraztertzeko errekurtsoa edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezan.

Eskaera onartzen duten ebazpenetan honako hauek ere adierazi behar dira:

- Aurrekonturik ez egoteagatik zerbitzua berehala ematea ezinezkoa denean, eskaera itxaron zerrendan sartu dela.
- Laguntza emango dela. Honako gai hauek zehaztu behar dira: iraupena, mota, intentsitatea eta zerbitzuaren kostua. Era berean, onuradunari dagokion ekarpen ekonomikoa.

Ebazpenean eskaerari uko egiten bazaio, uko egitearen arrazoiak adierazi beharko dira. Eskaera honako egoeraren bat gertatzen denean ezeztatuko da:

- Araudi honetan jasotzen diren baldintzak ez betetzea.
- Eskaeran adierazitako beharrak eskatzaileak berak eta/edo familiako kideren batek eta/edo beste baliabide pertsonal batek bete ahal izatea.
- Laguntzaren ezaugarriak direla kausa, edo eskatzailearen bizitokia dela kausa, laguntza hori beste administrazio publiko baten eskumena izatea.
- Zerbitzuak erabiltzailearentzat nahiz zerbitzua ematen duen langilearentzat arrisku fisiko eta/edo psikikoak sor ditzakeela baloratzea.
- Behar bezala zuritutako beste arrazoi batzuk.

Ebazpena legeak eskatzen duen epean jakinaraziko da, dagozkion baldintzak beteta. Ebazpenaren aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa jar dakioke dagokion organoari. Bestela, ebazpenaren aurka zuzenean egin daiteke, legez ezarritako epean eta baldintzetan administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztuta.

Ebazpena zerbitzua ematen duen erakundeari ere jakinarazi beharko zaio. Ebazpena 7 egun naturaleko epean bete beharko da jakinarazpenaren datatik hasita.

**16. artikulua**.-Larrialdi egoerak

Salbuespen gisa, eta beharra muturrekoa eta larria denean, udaleko gizarte zerbitzuek laguntza berehala ematen hastea proposatuko dute, eskaera behar bezala izapidetuta egon ez arren.

Udalaren gizarte zerbitzuek zerbitzua larria dela adieraziko diote zerbitzua ematen duen erakundeari eta honek 24 orduko epean hasi beharko du zerbitzua betetzen.

Gehienez ere 8 egun naturaleko epean tramitatu beharko da eskaera, ohiko prozedurari jarraituz.

2. SEKZIOA. ZERBITZUAN ONARTZEA ETA SARTZEA.

**17. artikulua**.- Zerbitzuan onartzea

Zerbitzua zerrendako ordenaren arabera emango zaie onartutako eskatzaileei. Horretarako, 1. eranskineko atalen arabera egindako eskaeren balorazioa hartuko da kontuan.

Puntuazio bera duten eskaerei dagokienez, honako atal hauetan puntuazio gehien dutenek izango dute lehentasuna. Hona hemen puntuazioa lortzeko lehentasunen ordena: gizarte eta familia egoera, laguntzaren premia, egoera ekonomikoa eta etxebizitzaren egoera.

## IV. KAPITULUA ZERBITZUA EGOKITZEA ETA ZERBITZUAREN SEGIMENDUA

**18. artikulua**.- Segimendua eta ebaluazioa

Gizarte laneko teknikariek segimendu jarraitua egingo dute, zerbitzua onuradunen beharrei egokitzen zaien ikusteko. Hala, dagozkien aldaketak proposatuko dituzte eta, onuradunekin batera, proposatutako helburuak lortu diren ebaluatuko dute. Era berean, joan beharra ikusiz gero, etxera bertara joateko aukera ere izango dute, eta baita aldian behin etxeko laguntzaileekin egoteko ere.

Onuradunak hala eskatuta, edota zerbitzua ematen duen erakundeak hala eskatuta, ebaluazioak egin ahal izango dira aldian-aldian. Bestela, ebaluazio horiek protokoloetan eta kontratuetan zehaztutako eran ere egin daitezke.

**19. artikulua**. Egokitzapen aldia.

Zerbitzuan sartu eta lehen hiru hilabeteetan, pertsonak zerbitzuaren funtzionatzeko ezaugarrietara egokitzeko aldian daudela joko da. Erabiltzailearen erreferentziazko gizarte laneko teknikariak eta/edo zerbitzuak kudeatzen dituzten enpresetako profesionalek une oro hitz egingo dute sortzen diren arazoei buruz. Egokitzapen ona lortzeko beharrezko irtenbideak bilatuko dira.

Erabiltzailearekin batera irtenbideren bat aurkitzen saiatuta ere, zaila bada erabiltzailea zein langilea zerbitzura egokitzea, edo jotzen bada zerbitzuak pertsonaren beharrak ez dituela asetzen, Gizarte Ongizateko Udal Zuzendaritzak/Buruzagitzak/ udaleko gizarte zerbitzuek egoera baloratu eta proposamena egingo du/dute. Aldez aurretik, txosten teknikoa egingo dute gizarte zerbitzuetakoek eta/edo zerbitzua kudeatzen duen enpresako profesionalek.

Egindako proposamena erabiltzaileari eman behar zaio. Erabiltzaileak 15 egun izango ditu alegazioak egiteko.

Alegazioak aztertu eta gero, Gizarte Ongizateko Zuzendaritzak/Buruzagitzak /udaleko gizarte zerbitzuek behin betiko proposamena aurkeztuko dio/diote aurkeztu behar zaion organoari, eta hark ebatziko du, ebazpen arrazoitua emanda. Pertsona zerbitzutik irtenaraztea erabakiz gero, beste aukera bat proposatuko da, halakorik badago.

## V. KAPITULUA.  ZERBITZUA ETETEA ETA IRAUNGITZEA

**20. artikulua.** Zerbitzua etetea eta iraungitzea.

20.1. Zerbitzua aldi batez etetea

Eskumena duen organoak dagokion espedientea bideratu eta gero, eta Gizarte Ongizateko Udal Zuzendaritzak/Buruzagitzak /udaleko gizarte zerbitzuek hala proposatuta, zerbitzua aldi batez etengo da, aldez aurretik interesatuarekin audientzia izan eta gero. Onuradunari, eta, hala dagokionean, zerbitzua ematen duen erakundeari emango zaio ebazpenaren berri, legeak eskatzen dituen epeetan eta zehazten dituen baldintzak beteta.

Etenaldiak dirauen bitartean erabiltzaileak ez du zertan dirurik ordaindu behar zerbitzuagatik.

Etxeko laguntza zerbitzua zenbait arrazoirengatik etengo da. Hona hemen arrazoi horiek:

- Hiru hilabete baino denbora gutxiagoz ospitalean egotea. Aldi hori egoera berezietan luza daiteke.
- Hiru hilabetez beste erakunde batzuek (Foru Aldundia, IMSERSO) eskainitako baliabideengatik etxetik kanpo egotea. Aldi hori egoera berezietan luza daiteke.
- Azken zerbitzuaz geroztik, hilabete eta erdi baino epe motzagoan etxetik kanpo egotea. Aldi hori egoera berezietan luza daiteke. Erabiltzailea familiako kideen etxeetan txandakatuta bizi bada, aldi hori txanden epeen arabera luzatuko da.
- Erabiltzaileak 10. artikuluan jasotako betebeharren bat betetzen ez badu, baina betebeharrak ez betetzea zerbitzua eteteko arrazoi ez denean.

Etxean ez egoteagatik zerbitzua eteten denean, erabiltzailea etxera etorri gabe dagoen denborak ezarritako epea gainditzen badu, zerbitzua iraungi egingo da.

20.2. Zerbitzua iraungitzea.

Eskumena duen organoak dagokion espedientea bideratu eta gero, eta Gizarte Ongizateko

Zuzendaritzak/Buruzagitzak /udaleko gizarte zerbitzuek hala proposatuta, zerbitzuko bajak ezarriko dira, aldez aurretik interesatuarekin audientzia izan eta gero. Onuradunari nahiz zerbitzua ematen duenari emango zaie ebazpen horren berri.

Etxeko laguntza zerbitzua zenbait arrazoirengatik etengo da. Hona hemen arrazoi horiek:

- ♣ Erabiltzaileak uko egitea.
- ♣ Zerbitzurako aurreikusitako epea amaitzea.
- ♣ Erabiltzailea hiltzea.
- ♣ Onuraduna beste udalerri batera joatea, familiako etxeetan txandaka bizi denean izan ezik.
- ♣ Onuraduna beste baliabide edo programa batean sartzea.
- ♣ Zerbitzua ematea sortu zuen beharra desagertzea.
- ♣ Zerbitzua emateko kontuan hartu diren datuak ezkutatzea edo datu faltsuak ematea.
- ♣ Zerbitzuan sartu ahal izateko eskatutako baldintzaren bat galtzea.
- ♣ Zerbitzuaren segimendurako eska daitekeen dokumentazioa ez ematea.
- ♣ 30 eguneko epean gizarte eta ekonomia egoera aldatu izanaren berri ez ematea.
- ♣ Aldi baterako zerbitzua eten eta gero, etenaldiaren ondoren etxera ez itzultzea.
- ♣ Zerbitzua ematen duen langileari eraso fisikoa edo psikologikoa eragitea.
- ♣ Zerbitzuko bi errezibo ordaintzen atzeratzea arrazoirik gabe.
- ♣ Araudi honetan zehaztutako erabiltzailearen betebeharrak behin eta berriz ez betetzea (erreziboak epez kanpo ordaintzea,...).
- ♣ Etxekoen unitatea osatzen dutenen artean gizarte laneko teknikariarekin edo zerbitzua ematen duenarekin lankidetzarik ez egotea. Horretarako, gizarte laneko zerbitzu teknikoak aldez aurreko balorazioa egin behar du.
- ♣ Erabiltzailearentzat nahiz zerbitzua ematen duenarentzat arrisku fisikoak eta/edo psikikoak egotea. Horretarako, gizarte laneko zerbitzu teknikoek aldez aurreko balorazioa egin behar dute.

Zerbitzua iraungi eta gero, erabiltzaileak berriz ere zerbitzuan sartu nahi duela adierazten badu, beste eskaera bat egin beharko du. Eskaera hori araudi honetan zehaztutakoaren arabera izapidetuko da.

Zerbitzua iraungi eta gero erabiltzaileak zerbitzuren bat ordaindu gabe baldin badu, haiek ordain ditzan eskatuko zaio berriz zerbitzua eman baino lehen.

## VI. KAPITULUA. ZERBITZUAREN ERREGIMEN EKONOMIKOA

**21. artikulua**. Etxeko laguntza zerbitzuaren prezioa.

2007 urtean zerbituaren prezioa zerbitzua esleitu zaion enpresak zehaztutakoa izango da; beti ere gehienezko prezioak jarraian adierazten direnak izango direlarik:

*Ordu arrunta: 17,25 euro

* Jaiegunetan; 20,70 euro

Ez zerbitzua ematen duen pertsonak ez zerbitzua hartuta duen enpresak ez du aurreko paragrafoan adierazitako diruaz gainerako ezer ere onartuko, ez emaririk ez ordainketa gehigarririk ez bestelakorik. Zerbitzua hartuta duen enpresak zaindu behar du baldintza hori betetzen dela.

**22. artikulua**. Finantzaketa

Honako hauen kargura finantzatuko dira zerbitzuak:

- Onuradunak zerbitzua finantzatzen parte hartu beharko du. Dagokion organoaren ebazpenean –betiere onuradunak dituen baliabide ekonomikoak kontuan hartuta–, ezartzen den kopurua ordaintzeko konpromisoa onartu behar du, zerbitzua ematen hasteko. Baldintza hori betetzetik salbuetsita geratuko dira udalaren ekimenez ezarritako prebentziorako zerbitzuen onuradun direnak (adingabeak, zerbitzua arriskuan dauden adingabeak zaintzera bideratuta dagoenenean) .

  Gizarte Ongizateko Zuzendaritzak/Buruzagitzak /udaleko gizarte zerbitzuek berariaz baimendu beharko dituzte salbuespen horiek. Horretarako, Haurren Atalak eta/edo gizarte zerbitzuetako zentroetako gizarte langileek nahitaezko txosten bat eman beharko dute aldez aurretik.

- Anoetako Udalak ordainduko du, orduko prezioari onuradunak ordaindu beharreko orduko ekarpena kenduta geratzen den kopurua. Kopuru hori 23. artikuluaren arabera eta II. eranskinean ezarritako ekarpenen baremoaren arabera kalkulatuko da.

- Etxeko laguntza zerbitzua erabiltzen duten pertsona ezinduen erantzukizun finantzarioa Gipuzkoako Foru Aldundiarena izango da esleituta dituen eskumenen eta Anoetako Udalarekin sinatuta duen hitzarmenaren arabera.

**23. artikulua**.- Zerbitzuaren erabiltzailearen ekarpena

Araudi honetan araututako zerbitzuen erabiltzaileak zerbitzuaren kostuaren ehuneko bat ordaindu beharko du, betiere bere gaitasun ekonomikoa kontuan hartuta. Gaitasun hori zehazteko, zerbitzuko onuradun guztien errenta eta ondarea hartuko dira kontuan.

Erabiltzailearen ekarpena elementu horien arabera ezarriko da, II. eranskinean ezarritako baremoaren arabera.

Gaitasun ekonomikoari buruzko datuak faltsifikatzearen edo ezkutatzearen ondorioz eskaera amaitutzat joko da, edota, zerbitzua emanda badago, zerbitzua iraungitzat joko da. Horrez gain, gertaera horietatik eratorritako ardurak bete beharko dira. Udalak prezioa ordaintzeko laguntzaren edo hobariren bat eman badio erabiltzaileari, laguntzak emateko udal ordenantzan arautzen den diru laguntzak itzultzeko prozedura hasiko da.

Zerbitzuetako erabiltzaileak, eta, hala badagokio, beren legezko ordezkariak, behartuta daude Udalari errentan, ondarean edo etxeko unitatean dauden aldaketen berri ematera, bai eta norberaren ekarpena ezartzeko eragina izan dezakeen beste edozein egoera jakinaraztera ere. Horren ondorioz sortzen den edozein aldaketa ekonomikok hurrengo hilean izango du eragina.

Norberaren ekarpenaren baldintzetan edo egoeretan aldaketaren bat dagoenean, udal teknikariek erabiltzailearen banakako ekarpena ofizioz berrikusi beharko dute, bai erabiltzaileak berak hala eskatuta, bai haren ordezkariak eskatuta.

## LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA

Erabiltzaile bakoitzari eskainiko zaion zerbitzuaren iraupena zehazteko, beti ere 7. artikuluko 2. puntuan ezarritako mugen barruan, zerbitzuaren denbora finkatzeko irizpide-eskuliburuaren arabera erabakiko da. Eskuliburu hori Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako profesionalek aplikatuko dute, eta erabiltzaileen esku ere egongo da.

## BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Araudiaren laburpen bat prestatuko da erabiltzaileei emateko.

## XEDAPEN IRAGANKORRA

Araudi hau indarrean jarri baino lehen zerbitzua jasotzen ari direnei ez zaie aplikatuko II. eranskina, alegia erabiltzaileek egin beharreko ekarpena zehazten duena; alabaina sei hilabeteko gehieneko epean eska dezakete hura aplikatzea. Aldaketa onartuz gero, ezingo da berriz eskatu aurreko araudia aplikatzea. Araudi berria aplikatzen ez zaien erabiltzaileei, araudi hau indarrean sartu baino lehen zegoen sistemak agintzen duena aplikatuko zaie. Beraz, sistema horrek dakartzan irizpideen arabera eguneratuko zaizkie zerbitzua jasotzeko egin behar dituzten ekarpenak. Hemendik aurrera izaten diren alta guztiak, baita lehengo sistema aplikatzen zitzaien pertsonei zerbitzua iraungi ondoren ematen direnak ere, araudi honetan jarritako baldintzen arabera izango dira.

## XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Araudi honetako arauekin kontraesanean dauden maila bereko nahiz txikiagoko arau guztiak indargabetuta geratu dira.

## AMAIERAKO LEHENENGO XEDAPENA

Anoetako Udalbatzari ahalmena ematen zaio araudi hau aplikatu eta garatzeko behar diren arauak eman ditzan.

## AMAIERAKO BIGARREN XEDAPENA

Araudi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamabost eguneko epean sartuko da indarrean.

Ordenantza hau, bertan adierazten den datan behin betikoz onetsirik izan zen, 2008ko urtarrilaren 1ean

sartuko da indarrean eta indarrean segituko aldatzea edo derogatzea erabaki arte.

Anoeta, 2007ko abenduak 31

**I. ERANSKINA**

## SARTZEKO BAREMOA

Sartzeko baremoak eskatzaileen zerrendarako ordenamendu irizpideak ezartzen ditu eta zerbitzuan sartzeko lehentasuna, gizarte diagnostikoaren arabera.

Sartzeko baremoa zehazteari dagokionez, eskatutako zerbitzuak pertsona bati baino gehiagori eragiten badio, laguntza behar handiena duen pertsonaren egoera bakarrik balioztatuko da, egoera ekonomikoaren dimentsioa zehaztean izan ezik; izan ere, kasu horretan, elkarbizitza unitatean dauden kideen per capita errenta balioztatuko da.

BAREMOAREN EGITURA

| DIMENTSIOAK | PUNTUAZIO TARTEAK |
|---|---|
| Eguneroko jarduerak egiteko laguntzaren beharra | 0-40 |
| Elkarbizitza eta gizarte sostenguko egoera | 0-30 |
| Etxebizitza edo bizitokiaren egoera | 0-20 |
| Egoera ekonomikoa | 0-10 |
| Guztira | 0-100 |

## I. EGUNEROKO JARDUERAK EGITEKO LAGUNTZAREN BEHARRA

Pertsonek behar duten laguntza maila balioztatzean datza, eguneroko bizitzako jarduerak egiteko garaian (jan, jantzi, norberaren garbiketa, besteak beste), bai eta jarduera instrumentalak egiterako garaian ere (etxetresna elektrikoak, erosketak, eta abar). Horrela, pertsona horiek duten autonomia maila mantentzea eta sustatzea da helburua, eta bizi kalitate onarekin bizitzea beren ingurunean.

Balioespen hori egiteko, berriz, dagokion administrazioak zehaztutako eskala erabiliko da.

II. ELKARBIZITZA ETA GIZARTE SOSTENGUKO EGOERA

Beharrak betetzeko pertsonak duen laguntza maila ezagutzea da helburua, honako aldagai hauek irizpidetzat hartuta:

θ ***Elkarbizitza egoera:* Bakarrik ala norbaitekin bizi den. Beste adindunekin bizi den (senitartekoak edo lagunak), edo beste senitarteko edo lagunekin.**

θ *Sare informalik duen ala ez, eta, baldin badago, sare horrek laguntza emateko eta hurbiltzeko dituen aukerak* (senitarteko eta / edo lagunak), eta zer laguntza mota ematen duen.

III. ETXEBIZITZA EDO BIZITOKIAREN EGOERA

Etxebizitzaren edo bizitokiaren ezaugarriak balioztatzean datza; izan ere, hauei eragin diezaiokete: era autonomoan moldatzeari, ingurunearen kontrolari, aukeratzeko ahalmenari, baita laguntza eta/edo sostengua jasotzeko aukerei ere.

Aintzat hartzeko aldagaiak dira iristen erraza izatea, bizitzeko egokia izatea eta ekipamendua.

IV. EGOERA EKONOMIKOA

Egoera ekonomikoa balioztatzeko, ondarea (higiezinen eta higigarrien kapitala) eta errenta (higiezinen eta higigarrien etekina eta pentsioetatik, soldatetatik, eta abarretatik datozen diru sarrerak) hartzen dira kontuan. ***(Ikus II. eranskineko A) ataleko baremo ekonomikoan ageri diren kontzeptuak).***

Ohiko etxebizitza kontuan izan gabe, 31.042,28 eurotik gorako per capita ondarea duten eskatzaileei (kopuru hori Espainiako kontsumo prezioen indizearen arabera eguneratuko da urtero) eta/edo errenta Eragin Askotako Errenta Adierazle Publikoa baino %300 handiagoa dutenei 0 puntu emango zaie.

Eragin Askotako Errenta Adierazle Publikoaren (EAEAP) %300en azpitik, 10 sarrera tarte ezarri dira, eta mailaka puntuatu dira, 10 arte.

| *Per capita* errenta | Puntuazioa |
|---|---|
| EAEAPren %110 arte | 10 |
| 111 – 115 | 9 |
| 116 – 125 | 8 |
| 126 – 150 | 7 |
| 151 – 175 | 6 |
| 176 – 200 | 5 |

| | |
|---|---|
| 201 – 225 | 4 |
| 226 – 250 | 3 |
| 251 – 275 | 2 |
| 276 – 300 | 1 |
| > EAEAPren %300 | 0 |

**II. ERANSKINA**

## EKARPEN EKONOMIKOAREN BAREMOA

A) Onuradunen ahalmen ekonomikoa kalkulatzea:

Ahalmen ekonomikoa honako balioztatze elementu hauen bidez kalkulatzen da: errenta, ondarea eta onuradunen kopurua.

1. Errenta da onuradunak edo onuradunek guztira jasotzen dituzten diru sarreren zenbatekoa. Honako hauetatik jaso dezakete:

- Lan etekinak, horren barne egonik pentsioak eta gizarte aurreikuspeneko prestazioak, edozein erregimen dutela ere.
- Kapital higikor zein higiezinaren etekinak.
- Enpresa edo lanbide jardueren etekinak.

2. Ondarea da onuradunen higiezinen eta higigarrien kapital osoa, eskabidea egin aurreko lau urteak kontuan hartuta balioetsita.

—Kapital higigarritzat jotzen dira: kontu korronteetako eta epe jakinerako kontuetako gordailuak; inbertsio funtsak eta pentsio funtsak; balore higigarriak; bizi aseguruak eta aldi bateko zein biziarteko errentak; arte objektuak, antigoaleko gauzak eta bestelako objektu baliotsuak.

—Kapital higiezintzat jotzen dira izaera landatarreko zein hiritarreko ondasunak.

3. Elkarbizitza unitatea da ohiko etxebizitzan bizi diren pertsonek osatzen dutena.

4 . Libreki erabiltzeko diru kopurua

Libreki erabiltzeko kopurua EAEAPren %114 izango da. Familia edo elkarbizitza unitatea kide batek baino gehiagok osatzen badute, aurreko zenbatekoari EAEAPren %40 erantsiko zaio bigarren kideagatik eta EAEAPren %30 gainerako kideetako bakoitzarengatik.

B) Onuradunen ekarpena kalkulatzea, orduko ezarritako prezioaren arabera:

1. Ohiko etxebizitza kontuan izan gabe (ohiko etxebizitza da norbera titularra den etxebizitza, hori ohiko bizitokia izanik), 31.042,28 eurotik gorako per capita ondarea duten eskatzaileek (kopuru hori Euskal Autonomia Erkidegoko kontsumo prezioen indizearen arabera eguneratuko da urtero), orduko ezarritako prezio osoa ordaindu behar dute, neurriz gainetik dagoen kopuruarekin. Ondarea kopuru hori bera edo txikiagoa bada, 2. puntuan ezarritako prozedura aplikatuko da.

Per capita ondarea, zerbitzu motaren arabera, honela zenbatzen da:

- **Etxeko laguntza zerbitzua eta zerbitzu mistoa (etxeko laguntza + laguntza pertsonala).**

Elkarbizitza unitateko kideen higiezinen eta higigarrien per capita kapitala.

- **Laguntza pertsonaleko zerbitzua**. Onuradunaren higiezinen eta higigarrien kapitala. Ezkontzetan edo izatezko bikoteetan, bi pertsonen ondarea batu eta zati bi egiten da, eta zati bat bakarrik hartzen da kontuan.

2. Onuradunak edo onuradunek errentaren araberako ekarpena egingo dute, ondoren deskribatutako baremoa irizpide hartuta.

Errenta, zerbitzu motaren arabera, honela zenbatzen da:

- Etxeko laguntza zerbitzua eta zerbitzu mistoa (etxeko laguntza + laguntza pertsonala). Elkarbizitza unitateko kide guztien diru sarrera garbiak.

- Laguntza pertsonaleko zerbitzua, onuradunaren diru sarrera garbiak. Ezkontzetan edo izatezko bikoteetan, bi pertsonen sarrera garbiak batu eta zati bi egiten da, eta zati bat bakarrik hartzen da kontuan.

C) Erabiltzailearen diru ekarpena zehaztea

Zerbitzuaren kostuaren gainean erabiltzaileak egingo duen ekarpena ondorengo ekarpenen taularen arabera zehaztuko da:

| EkarpenaSarrerak%1,50EAEAP %110 arte% | |
|---|---|
| | |
| | |
| | |
| | |
| | |
| | |
| | |
| | |
| | |
| | |
| | |

Ondoren, aurreikusitako etxeko laguntza zerbitzuko ordu kopuruaren arabera erabiltzaileak hilean egingo duen diru ekarpena kalkulatuko da eta bermatutako libreki erabiltzeko zenbatekoa aplikatuko da.

Aurreko eragiketa egin ondoren ez bada libreki erabiltzeko diru kopurua bermatzen aurreko diru sarrera tarteari dagokion ekarpen portzentaia aplikatuko da libreki erabiltzeko diru kopurua bermatu arte.

Nolanahi ere, erabiltzaileak etxeko laguntza zerbitzuaren orduko prezioaren %1,5 gutxienez ordaindu beharko du.

## Zerbitzu bat baino gehiago aldi berean erabiltzea

Erabiltzailea aldi berean beste gizarte zerbitzu baten onuradun ere bada, pertsonaren ekarpen ekonomikoa horrela balioztatuko da:

- Pertsona autonomoentzako bestelako bizitokiak: lehenik eta behin, ahalmen ekonomikoa balioztatuko da bestelako bizitokietarako (gizarte etxebizitzak, etxebizitza komunitarioak) ekarpen baremoen arabera; bigarren, diru sarrerei bestelako bizitoki horren kostuaren ordainetan egiten den ekarpenaren %100 kendu ondoren, gelditzen zaion ahalmen ekonomikoa balioetsiko da, etxeko laguntza zerbitzuko ekarpen baremoa aplikatuz.

- Eguneko zentroa eta gainerako zerbitzuak: diru sarrerei eguneko zentroaren edo dagokion zerbitzuaren ordainetan egiten duen ekarpenaren %100 kenduko zaie.